



# EMAITZAK

2026ko LEHEN SEIHILEKOA

# LEGE OHARRA

## DOKUMENTU HAU INFORMAZIOA EMATEKO HELBURUAREKIN BAKARRIK PRESTATU DA

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitortzen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko azalpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduaren berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu, arriskuak eta gorabeherak izan baititzaizkete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daitezke emaitza errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsiotarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritzia dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta aldez aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eksklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek aldez aurretik idatzizko baimena eman gabe.

# AURKIBIDEA

- 1/ 2026ko 1SHko DATU AIPAGARRIENAK
- 2/ FINANTZA INFORMAZIOA
- 3/ BURTSAKO INFORMAZIOA
- 4/ JASANGARRITASUNA
- 5/ AURREIKUSPENAK
- 6/ ERANSKINAK

**TRUST  
IN MOTION**

# 1/ 2026ko 1SHko DATU AIPAGARRIENAK

---

1.1 MAGNITUDE NAGUSIAK

# URTEKO LEHEN SEIHILEKOAN, MERKATARITZA ARLOKO LORPEN NABARMENAK, ZORROAREN GAUZATZE SENDOA ETA FINANTZA SENDOTASUNA

|                                                                                                        |                                                                                             |                                                                                                |                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <div>Kontratazioa</div> <div>4.035 M€</div> <div>+% 31</div> <div>vs 2025eko 1SH</div>                 | <div>Salmentak</div> <div>2.527 M€</div> <div>+% 16</div> <div>vs 2025eko 1SH</div>         | <div>Book-to-bill</div> <div>1,6x</div>                                                        | <div>Eskari zorroa</div> <div>17.743 M€</div> <div>+% 9</div> <div>vs 2025/12/31</div> | <div>/ Kontratazio handia eta zorroa maximotan</div> <div>/ Emaitzaren hazkundera % 30etik gorakoa, jarduera handitu eta marjinak zabaldu diren seihilekoan</div> <div>/ Solarisek errekorreko zifrak lortu ditu CAFek 2018an erosi zuenetik, eta nabarmen handitu du Taldeari egiten dion ekarpena</div> <div>/ Kutxa-sorkuntza positiboa eta balantzearen sendotzea</div> |
| <div>EBIT</div> <div>150 M€</div> <div>+% 32</div> <div>vs 2025eko 1SH</div>                           | <div>EBIT mj</div> <div>% 5,9</div> <div>Ehuneko +0,7 puntu</div> <div>vs 2025eko 1SH</div> | <div>Emaiza garbi egozgarria</div> <div>99 M€</div> <div>+% 36</div> <div>vs 2025eko 1SH</div> |                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <div>Cash flow-a</div> <div>12 M€</div>                                                                | <div>FZG</div> <div>176 M€</div>                                                            | <div>FZG/EBITDA</div> <div>0,5x</div>                                                          |                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <div>Jasangarritasuna</div> <div>Aurrerapen positiboak Jasangarritasuneko Gida Planarekin lotuta</div> |                                                                                             |                                                                                                |                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |

MUGARRI GARRANTZITSUAK

# TALDEAREN ETORKIZUNeko HAZKUNDEA BULTZATZEN DUTEN INBERTSIO ESTRATEGIKOAK

/ CAFen presentzia industrial eta operatiboa sendotzea funtsezko herrialde eta jardueretan

## Mantentze-lanetarako instalazio berriak

- Trengintza arloko mantentze-lanetarako instalazio berriaren inaugurazioa Manchesterren

Kokapen estrategikoa, garrantzi handiko bezero batzuegandik hurbil.

Hasiera batean, osagai kritikoak (gurpilak eta bogieak) berrikuspen- eta mantentze-lanetara bideratua, etorkizunean irismen hori zabaltzea aurreikusiz.

Gaur egun, mantentze-lanetako 14 kontratutan ari da CAF lanean Erresuma Batuan.



- Alemanian trengintza arloko mantentze-lanetarako bi zentro eraiki eta ekipatzea

Gelsenkirchen eta Neubeckum udalerrietan.

Inbertsioa 2027an amaitzea aurreikusten da.

VRR/NWLren BEMU trenen mantentze-lanak hartuko dituzte 30 urtez.

## Trenbide proben bigarren nabearen amaiera Beasainen

2026ko irailetik aurrera martxan egongo den instalazio modernoa, moldakorra eta ahalmen handikoa.

Zorroan dauden proiektuak gauzatzeko eta negozioaren hazkundea bultzatzeko beharrezko inbertsioa.



## Solarisek produkzio-gaitasuna handitu eta hazkunde-estrategia bizkortu du

7.000m<sup>2</sup>-ko ekoizpen nabe berria Polonian: Egungo produkzio-gaitasuna urtean 500 autobus inguru handituko da, eta horri esker urtean 2.000 autobus baino gehiago produzitzeko bidea bermatuko da.


Etorkizuneko handitzeetarako 47.000 m<sup>2</sup>-ko lurzoru gehigarria bermatu da.



1.2 KONTRATAZIOA

# KONTRATAZIO HANDIA LEHEN SEIHILEKOAN, INTERES ESTRATEGIKO HANDIKO TRENGINTZA ARLOKO KONTRATU BERRIAK ESKURATU IZANARI ESKER

GUZTIRA (M€)




|           |       |       |
|-----------|-------|-------|
| Trenak    | 1.939 | 3.431 |
| Autobusak | 1.130 | 604   |

- **Pipelinea** oraindik ere sendoa da bi segmentuetan:


**Trengintza arloa:** aukera-kontzentrazio handia Europa kontinentean, munduko trenbide-merkatu handienetan. Aukera osagarriak beste geografia batzuetan.

**Autobusen** arloan, aukera-zorroaren zati handiena Solarisen merkatu nagusia kokatzen da (Europa kontinentaleko hiri-segmentua). Kontratazio-aukera osagarriak merkatu berrietan (Ipar Amerikako hiri-segmentua eta Europako hiriarteko segmentua).

KONTRATAZIOAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%)



KONTRATAZIOAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%)



/ 2026aren hasieran SNCBren sinatutako tamaina handiko kontratuari 2026ko 2HHan formalizatutako beste kontratu garrantzitsu batzuk gehitu zaizkio, zerbitzuen eta trenbide-seinaleztapenaren arloetan.

/ **Btb=1,6** Talde osoan, 2026ko 1SHan.  
 Btb=2,0 trenen segmentuan  
 Btb=0,7 autobusen segmentuan, sei hilekoan salmentek izan duten hazkunde handiaren ondorioz.

/ 2026ko 2HHko trenen kontratazioak honako hauek hartzen ditu barne (besteak beste):

- Napoliko Metrorako (Italia) proiektu integrala, CBTC gidatze automatikoarekin, GoA4n
- Mantentze-lanetarako kontratuak Suediarako eta Norvegiarako


/ Sei hilekoan **725 autobus kontratatuta** dira, eta **horietatik % 80 baino gehiago zero isurikoak** dira.

/ Eremu geografikoei dagokienez, **Europak Taldearen kontratazioaren merkatu nagusia izaten jarraitzen** du, nahiz eta 2026an joera hori areagotu egin den, SNCBren sinatutako proiektuaren ondorioz.

## 1.2 KONTRATAZIOA

## LEHENTASUNEZKO TEKNOLOGIA ETA SEGMENTUETAKO KONTRATUAK

## / 2026ko 2HHan iragarritako eta sinatutako kontratazio nagusiak

**NAPOLIKO (ITALIA) METROAREN PROIEKTU INTEGRALA, CBTC SEINALEZTAPEN SISTEMAREKIN**

- **CAFek** Napoliko Metroaren 10. linea berriaren 2. loteko **proiektu integrala gauzatuko duen kontsorzioa zuzentzen du**. Proiektuak metro-sistema automatikoaren diseinua eta ezarpena hartzen ditu barne.
- CAFek E.A.V. S.r.l. enpresarekin (Italiako Campania eskualdeko garraio-operadorea) akordioa sinatu du.
- Akordioaren irismenak honako hauek hartzen ditu barne, besteak beste: CBTC/ATO GoA4 seinaleztapen-sistema, Kontrol Operatiboko Zentroa, tren-flotaren hornidura, tailerreko ekipoa eta mantentze integraleko zerbitzuak.
- CAF partaide den kontsorzioari esleitutako kontratuaren hasierako fasearen balioa **259 M€**-koa da, eta **630 M€-raino handitu ahal izango da** aukera exekutagarriekin.

**MANTENTZE ZERBITZUAK SUEDIAN ETA NORVEGIAN**

- **EuroMaintek** epe luzerako trengintza arloko mantentze-lanetako kontratuak sinatu ditu Suedian eta Norvegian, **300 M€-ko balio zenbatetsiarekin**.
- Akordioek lan hauek jasotzen dituzte:
  - Suediako hegoaldean X61 eskualdeko 99 tren flotaren mantentze-lanak 9 urtez.
  - Green Cargo operadore logistikoaren Rc/Rd lokomotora-flotaren mantentze-kontratuaren urte anitzeko berrikuntza.
  - Norvegiar azpiegitura-lanetan erabiltzen diren trenbide-ibilgailuen mantentze-lanak gutxienez 4 urtez, Bane NOR Norvegiako trenbide-azpiegituraren kudeatzaile nazionalarekin sinatutako kontratuaren arabera.


**TRUST  
IN MOTION**

1.3 ESKARIEN ZORROA

# ESKAERA ZORROA INOIZKO HANDIENA, ETORKIZUNEKO HAZKUNDEA BULTZATUZ

GUZTIRA (M€)

Autobusak  
Trenak



|                                        |      |      |
|----------------------------------------|------|------|
| Zorroa / Salmentak ratioa <sup>1</sup> | 3,6x | 4,0x |
| Autobusak                              | 2,0x | 1,8x |
| Trenak                                 | 4,2x | 4,7x |

/ Eskaera-zorroa % 9 hazi da seihilekoan, batez ere trengintza arloko kontratazio handiari esker.

/ Solarisek bere zorroa murriztu du, 2026ko 2HHan izandako jarduera handiaren ondorioz.

/ Eskaera-zorro honek ez ditu barne hartzen dagoeneko iragarri eta sinatutako honako esleipen hauek, 700 M€tik gorako guztizko balioa dutenak:

- Kairoko (Egipto) metrorako birgaitzea eta mantentzea.
- Belgrado (Serbia) aldiriko trenez hornitzea.


/ Zorro horretan ez dago jasota zorroko kontratuei lotuta dauden eta bezeroek gauza ditzaketen etorkizuneko aukeren bolumen handia (>10.000 M€).

<sup>1</sup> Ratioa 2026/06/30ean, 2025ean izandako salmenten arabera kalkulatuta.

1.3 ESKARIEN ZORROA


# SNCB-REKIN SINATUTAKO KONTRATUAREN BOLUMEN HANDIAK LEHEN SEIHILEKO HONETAN METATUTAKO ZORROAREN BANAKETA BERRANTOLATU DU

ZORROAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%)



**Eskaera-zorroa handitu egin da jarduera-lerro guztietan, Autobusen arloan izan ezik;** izan ere, aldi horretan izandako exekuzio-maila handiaren ondorioz, murriztu egin da.

ZORRAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%)



**Irismen globaleko zorroa.**  
**Europak gero eta garrantzi handiagoa du,** eta 2026/06/30ean Taldearen eskaera-zorroaren % 77 hartzen du.

# 2/ FINANTZA INFORMAZIOA

---

2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

# EMAITZA GARBIA % 36 HAZI DA, JARDUERAREN HAZKUNDEAREN ETA ERRENTAGARRITASUNAREN HOBEKUNTZAREN ONDORIOZ

/ Emaizta garbia ia 100 M€-koa izan da seihileko batean

| (milioi eurotan)                                               | 2025eko<br>1SH <sup>(1)</sup> | 2026ko<br>1SH <sup>(1)</sup> | Ald. 2026ko<br>1SH/2025eko 1SH <sup>(1)</sup> |
|----------------------------------------------------------------|-------------------------------|------------------------------|-----------------------------------------------|
| NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA                              | 2.174                         | 2.527                        | +% 16                                         |
| USTIAPENAREN EMAITZA - EBIT                                    | 114                           | 150                          | +% 32                                         |
| EBIT Marjinaren %                                              | % 5,2                         | % 5,9                        |                                               |
| Finantza arloko emaitza                                        | (17)                          | (19)                         | +% 11                                         |
| Finantza-sarrerak                                              | 11                            | 8                            | -% 26                                         |
| Finantza-gastuak                                               | (25)                          | (27)                         | +% 9                                          |
| Trukeko edo kanbioko aldeak                                    | (2)                           | 1                            |                                               |
| Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk                     | (1)                           | 0                            |                                               |
| Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundeen emaitza | 8,0                           | 6,6                          | -% 18                                         |
| ZERGEN AURREKO EMAITZA                                         | 104                           | 137                          | +% 31                                         |
| Irabazien gaineko zerga                                        | (28)                          | (35)                         | +% 26                                         |
| Zergen ondorengo emaitza garbia                                | 76                            | 102                          | +% 34                                         |
| Interes minoritarioak                                          | 3,0                           | 2,6                          | -% 14                                         |
| ERAKUNDE KONTROLATZAILEARI EGOTZITAKO EMAITZA                  | 73                            | 99                           | +% 36                                         |

/ Lehen seihilekoko salmentek **bi digituko (+% 16)** hazkunda izan dute, **batez ere entregatutako autobus kopuru handiaren ondorioz.**

/ Jardueraren hazkundeak eta errentagarritasunaren hobekuntzak (ehuneko +0,7 puntu) **nabarmen hobetu dute ustiapen-emaizta (+% 32).**

/ **Finantza-emaiztak ez du aldaketa esanguratsurik izan**, Taldearen zor-egituraren egonkortasunari esker.

/ **Zerga aurreko emaitza 137 M€-koa** izan da. Horri **% 26ko zerga-tasa eraginkorra** aplikatu zaio, aurreko ekitaldikoa baino zertxobait txikiagoa.

/ Horren guztiaren ondorioz, **Erakunde Kontrolatzaileari egotzitako emaitza garbia 99 M€-ra** iritsi da lehen seihilekoan; hau da, **urte arteko tasa +% 36koa** izan da (datu esanguratsua).

<sup>(1)</sup> Milioi eurotar biribildutako zifra absolutuak. Urte arteko aldakuntza, zifra absolutuak zehatz-mehatz kontuan hartuta, biribildu gabe.


## 2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

# SALMENTA BATERATUEN GORAKADA NABARMENA, AUTOBUSEN SEGMENTUAK IZANDAKO GORAKADA HANDIARI ESKER


/ Trengintza arloko salmentek hazkunde positiboa izan dute lehen seihilekoan, aurreratutakoaren ildotik

## SALMENTAK

## BATERATUA




## TREN ARLOA



- Kontabilitate-ondorioen eraginez 2026ko 1HHan salmentek aldi baterako beherakada (~% 5) izan ondoren, **tren arloko negozioak % 3ko salmenta-hazkunde metatua izan du lehen seihilekoaren amaieran, aurreikusitakoaren arabera.**
- Ekialde Hurbileko gatazkak eskualde horretako trenbide-proiektuen exekuzioan duen **eraginak** bere horretan jarraitzen du, baina **ez du eragin materialik.**

## AUTOBUSAK



- Salmenten hazkunde handia**, honako hauek eraginda:
  - 2026ko lehen seihilekorako planifikatutako eta gauzatutako autobus-entregen bolumen handia; aurreko ekitaldian, aldiz, entrega-bolumen handiena bigarren seihilekoan pilatu zen. Horrela, **2026ko 1SHan entregak +% 41 handitu dira urte arteko tasari dagokionez**; aldiz, **2026ko 2SHan entrega-profila aurreko ekitaldietakoaren antzekoa** izango da.
  - Entregatutako **zero isuriko autobusen proportzio handiagoa** (% 90, vs % 68), bai eta autobus horien **unitateko prezio handiagoa** ere, 2025eko 1SHarekiko.


## 2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

# IBILGAILUEN FABRIKAZIOAK ETA MANTENTZE ZERBITZUAK TREN ARLOKO SALMENTAK DINAMIZATU DITUZTE

/ Soluzio integralen eta sistemen salmentak gutxitu egin dira, giltza eskurako proiektuak pixkanaka amaitzearen ondorioz


## TREN ARLOKO SALMENTAK

## TREN IBILGAILUAK




- Epe horretan gehien saldu diren proiektuak honako hauek izan dira: Madrilerako (Espainia) metro-unitateak, New South Waleserako (Australia) eta SNCFentzako (Frantzia) eskualde-unitateak, eta Tel Aviverako (Israel) eta Erromarako (Italia) tranbiak.

## ZERBITZUAK



- Hego Amerikan, Erresuma Batuan eta Italian tren-ibilgailuen **mantentze-lanak ugaritu izanak** zerbitzuen jardueran aldi horretan izandako gorakada bultzatu du.

## SOLUZIO INTEGRALAK ETA SISTEMAK



- Proiektu integralen ekarpen txikiago hori** konpentsatu egin da, neurri batean, **tren arloko seinalaztapenaren eta trenak birgaitzeko jardueren salmentek gora** egin dutelako, azken hauek gero eta ekarpen handiagoa egiten diotelarik Taldeari.


2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

SOLARISEK INOIZKO SEIHILEKORIK ONENA IZAN DU, BAI ENTREGA BOLUMENARI BAI ZERO ISURIKO IBILGAILUEN PROPORTZIOARI DAGOKIENEZ


Lehen seihilekoko jardunak negozioaren etorkizuneko hazkunde-asmoetarako oinarri operatibo sendoa ezarri du

AUTOBUSEN SALMENTAK

ENTREGATUTAKO AUTOBUS KOPURUA



ZORROAN DAGOEN AUTOBUS KOPURUA



|                |                                                                          |      |      |      |
|----------------|--------------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| Zero isurpenak | Autobus <b>elektrikoen</b> %<br>(elektrikoak eta hidrogeno bidezkoak)    | % 64 | % 81 | % 62 |
|                | Trolebusen %                                                             | % 4  | % 9  | % 19 |
| Isurpen baxuak | Autobus <b>hibrido</b> en %                                              | % 7  | % 2  | % 12 |
|                | <b>Emobility</b> autobusen GUZTIZKO %<br>(zero isuriak eta isuri baxuak) | % 75 | % 92 | % 93 |

Kanadan sinatutako bolumen handiko kontratua barne

Solarisek **1.079 autobus** entregatu ditu 2026ko 1SHan, **errekorreko zifra** (urte arteko +%41 eko hazkundera), urte osorako aurrez ikusitako entrega-planeari ezarritakoaren arabera. Plan horretan, entregatutako banaketa orekatuagoa da hiru hilabetearen artean (aurreko ekitaldian, ordea, kontzentrazioa handia izan zen 4HHan).

Entregatutako **zero isuriko autobusen proportzioa** % 68tik % 90era igo da, **inoizko mailarik handiena** lortuz eta **Solarisek eskakizun handiko eskaera-zorria exekutatzeko duen gaitasun operatiboa** agerian utziz.

Zero isuriko autobusen gamaren barruan, berriz ere nabarmendu da **autobus elektrikoen** (bateriadunak nahiz hidrogeno bidezkoak) **entregak izandako gorakada**. Autobus horiek entrega guztien % 81 dira (873 autobus, 2025eko 1SHan entregatutako 489 autobusen aldean). **Trolebusen entregak ere handitu** egin dira (95 unitate, 2025eko 1SHko 33 unitateen aldean), eta **laster Kanadako merkatu berrira trolebusak entregatzen hasiko** da.

Ekainaren amaieran, **eskaera-zorria** 2.387 hiri-autobusek osatzen dute, eta **Europar, AEBn eta Kanadan 2028ra arteko entrega-konpromisoak** jasotzen ditu.

2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA


# ERRENTAGARRITASUNAREN BULTZADA ETA EMAITZAREN HEDAPEN NABARMENA LEHEN SEIHILEKOAN

**/ Solarisek oso bilakaera positiboa izan du, eta urtebetean EBITa bikoiztu du**


EMAITZA

EBITa (M€) eta EBIT marjina (%)

Autobusak  
Trenak



INTERES MINORITARIOEN OSTeko EMAITZA GARBIA (M €)



**/ EBITak % 32 egin du gora, 150 M€ arte.**

**/ Eraitza garbiaren gorakada nabarmen handiagoa da (+% 36), eta 99 M€-an kokatu da.**

Segmentuka:

Trenak

**Errentagarritasunak hobekuntza neurritsua izan du, oraindik ere inflazioaren eragin partziala jasaten ari den zorroaren exekuzioan.**

Autobusak

**Errentagarritasunak gora egin du (ehuneko +1,8 puntu), eta CAF Taldeak 2018an erosteta egin zuenetik izandako mailarik handiena lortu du. Hobekuntza hori, batez ere, gauzatutako proiektuen konbinazioari eta eraginkortasun operatibo handiagoari esker lortu da.**


**Solarisen EBITa % 114 hazi da urte batean, eta 60 M€-ra iritsi da, jardueraren hazkundeari eta errentagarritasunaren hobekuntza nabarmenari esker.**

2.2. CASH FLOW-A

KUTXA SORKUNTZA POSITIBOA, EMAITZEN HAZKUNDEARI ESKER, ZIRKULATZAILEAN ETA CAPEX-EAN EGINDAKO INBERTSIOA HANDITU DEN ARREN

BRIDGE EBITDA-CASH FLOW-A (M€)

2026ko 1SH




2.3. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

# BALANTZEA INDARTU EGIN DA ONDARE GARBIAREN GORAKADARI ETA ZOR GARBIAREN JAITSIERARI ESKER


| (milioi eurotan)                   | 2025/12/31   | 2026/06/30   |
|------------------------------------|--------------|--------------|
| Aktibo finkoak                     | 1.211        | 1.173        |
| Zirkulatzailan egindako inbertsioa | 87           | 235          |
| <b>AKTIBO GARBIA</b>               | <b>1.298</b> | <b>1.408</b> |
| Ondare garbia                      | 988          | 1.043        |
| Finantza Zor Garbia                | 188          | 176          |
| Beste aktibo eta pasibo batzuk     | 122          | 189          |
| <b>ONDAREA ETA PASIBO GARBIA</b>   | <b>1.298</b> | <b>1.408</b> |

CAPEX (MATERIALA + INMATERIALA) (M€)



- **CAPEXa handitu** egin da, bereziki **gaitasuna handitzearekin** lotutako aktibo materialetan.
- **Bigarren seihilekoan CAPEXa bizkortzea** aurreikusten da, urteko planean ezarritakoaren ildotik.

ZIRKULATZAILE GARBIA (M€)




- **Zirkulatzailarearen gorakada,** jardueraren hazkundeari eta kobrantzen kalendarizazioari esker.

2.3. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

# FINANTZA POSIZIO SENDOA, ETA KONTROLPEAN DAGOENA


/ FZG/EBITDA ratioaren egonkortasuna, eta likidezia handia eskuragarri

FINANTZA ZOR GARBIA (M€)



• Zor gordina mantendu egin da; aldiz, altxortegia zertxobait igo da.

LIKIDEZIA (M€)



• Erabili gabeko kreditu-lerroen neurria igo egin da eta horrek eskuragarri dagoen likidezia handitu du.


# 3/ BURTSAKO INFORMAZIOA

---

# CAF-EN BURTTSA BALIOAK GORA EGIN DU (+% 8) URTEAREN LEHEN ERDIAN

CAFen helburu-prezioa gorantz berrikusi dute analistek, eta gehiengoak CAFen akzioak EROSTEA gomendatzen du

CAF VS IBEX ETA SEKTOREAREN ARTEKO BILAKAERA<sup>1</sup>




Iturria: Factset.

BURTSAKO ADIERAZLEAK

|                                        | 2026/06/30    |
|----------------------------------------|---------------|
| Burtsako kapitalizazioa (eurotan)      | 2.176.827.625 |
| Akzio kopurua                          | 34.280.750    |
| Azken kotizazio-prezioa (eurotan)      | 63,5          |
| Gehieneko kotizazio-prezioa (eurotan)  | 65,9          |
| Gutxieneko kotizazio-prezioa (eurotan) | 51,4          |
| Negoziatutako bolumena (milaka akzio)  | 3.480         |
| Negoziatutako eskudirua (milaka euro)  | 207.179       |

AKZIOEN EGITURA



<sup>1</sup> 2026ko uztailak 16. Sektorearen bilakaera hurrengo 4 lehiakideen batez besteko bilakaeraren arabera neurtuta: Alstom, Stadler, CAF eta Talgo. Iturria: Factset.

<sup>2</sup> % 3 baino gehiagoko partaidetza edo, paradisu fiskaletan egoitza duten inbertsiogileen kasuan, % 1eko partaidetza duten inbertsiogileak biltzen ditu (Iturria: CNMV). Likidezia-kontratuari lotutako autozorroko akzioak ere barne hartzen ditu.

# 4/ JASANGARRITASUNA

---

# AURRERAPEN POSITIBOAK JASANGARRITASUNeko GIDA PLANAREKIN LOTUTA

## / 2026ko 1SHko jarduera esanguratsuenak

### INGURUMENA

- 2. irismeneko isuriak murrizten aurrera egin da, **Jatorri Bermea duten kontratatutako hornidura elektrikoa handitu** izanari esker.

### ARLO SOZIALA

- CAFek pertsonetikiko duen konpromisoa **Top Employer Regional Europe** ziurtagiriarekin aitortu da **Espainian, Frantzian, Erresuma Batuan, Alemanian eta Polonian**. Mugarri horrek agerian uzten du Taldeak talentuaren kudeaketan eta lan-ingurune seguruak, erakargarriak eta kalitatezkoak garatzeko egiten duen lana. Era berean, **CAF Merco Empresas 100 sailkapenean sartu** dute eta bigarren postua lortu du industria-sektorean.

### GOBERNANTZA

- 2027-2030 aldirako ziklo estrategiko berriari ekin zaio. Horren barruan, besteak beste, 2024an egindako **Materialtasun Bikoitzaren Analisia** eguneratuko da. Lanketa horren ondorioek funtsezko informazioa emango dute, beste analisi-elementu batzuekin batera, hurrengo **Plan Estrategikoa** definitzeko eta, aldi berean, **Jasangarritasuneko Gida Plana** eta jasangarritasunarekin lotutako gainerako kudeaketa-tresnak eguneratzeko.

## / 2026ko 1SHko emaitza nagusiak


| ADIERAZLEAK                                       | JOERA  | BENETAKOA<br>2025eko FY | BENETAKOA<br>2026ko 1SH | HELBURUA<br>2026ko FY |
|---------------------------------------------------|--------|-------------------------|-------------------------|-----------------------|
| UE taxonomiarekiko lerrokatuta (negozio-bolumena) | ↑ hobe | % 86,5                  | % 88,0                  | % 84,0                |
| Maiztasun Indizea                                 | ↓ hobe | 13,8                    | 14,4                    | 13,5                  |
| CDP balorazioa                                    | ↑ hobe | A                       | A                       | A-                    |
| Sustainalyticsen balorazioa                       | ↓ hobe | Arrisku baxua           | Arrisku baxua           | Arrisku baxua         |
| MSCI balorazioa                                   | ↑ hobe | A                       | A                       | A                     |
| S&P Global ESG Scoreren balorazioa                | ↑ hobe | 66                      | 66                      | 70                    |
| Ecovadis balorazioa                               | ↑ hobe | 80                      | 80                      | 75                    |

# 5/ AURREIKUSPENAK

5. AURREIKUSPENAK

# CAF-EK 2026RAKO AURREIKUSPENAK BERRETSI DITU, ETA 2027-2030 HURRENGO ZIKLO ESTRATEGIKORAKO PRESTATZEN ARI DA

 Plan Estrategiko berria 2026ko azken hiruhilekoan aurkeztuko da merkatuan



<sup>1</sup> Aurreikuspen hauek baztertu egiten dute edozein eragiketa ez-organikoren balizko eragina, eta nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoen egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen dira, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.

# 6/ ERANSKINAK


6.1 KONTRATAZIOAREN XEHETASUNA

/ 2026ko urtarrila- ekaina aldian iragarri eta eskaeren zorroan sartu diren kontratuak

| DATA       | PROIEKTUA                   | HERRIALDEA          | NEGOZIOA / JARDUERA                                                          | DESKRIBAPENA                                                                                                                             | MOTA               | BEZEROA            | AUKERA OSAGARRIAK | ZENBATEKOA<br>(etorkizuneko aukerak kanpoan utzi dira) |
|------------|-----------------------------|---------------------|------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------|--------------------|-------------------|--------------------------------------------------------|
| 2026ko 1HH | SNCB                        | Belgika             | Tren arloa / Tren-ibilgailuak                                                | Tren arloko 180 kotxeren hornikuntza                                                                                                     | Oinarri-kontratua  | Berria             | Bai               | > 1.700 M€                                             |
| 2026ko 1HH | CBTC Helsinki               | Finlandia           | Tren arloa / Soluzio Integralak eta Sistemak                                 | CBTC ezartzea, kontrol-zentroa hornitzea eta egungo flotako ibilgailu barruetako seinaleztapen-sistemak ordezkatzea                      | Oinarri-kontratua  | Berria ez          | Ez                | 60 M€ inguru                                           |
| 2026ko 1HH | Nobina                      | Suedia              | Autobusak                                                                    | 103 autobus elektrikoren hornikuntza                                                                                                     | Oinarri-kontratua  | Berria ez          | Ez                | > 125 M€                                               |
| 2026ko 1HH | VR Sverige                  | Suedia              | Autobusak                                                                    | 101 autobus elektrikoren hornikuntza                                                                                                     | Oinarri-kontratua  | Berria ez          | Ez                |                                                        |
| 2026ko 2HH | Napoliko proiektu integrala | Italia              | Tren arloa / Tren-ibilgailuak + Soluzio integralak eta sistemak + Zerbitzuak | Proiektu integrala. Besteak beste, CBTC/ATO seinaleztapen-sistemaren eta tren flotaren eta mantentze-lanen hornikuntza barne hartzen du. | Oinarri-kontratua  | Berria ez          | Bai               | -                                                      |
| 2026ko 2HH | EuroMaint                   | Suedia eta Norvegia | Tren arloa / Zerbitzuak                                                      | Hainbat kontratu mantentze-lanetako zerbitzuak emateko                                                                                   | Oinarri-kontratuak | Berria ez / Berria | Ez                | 300 M€ inguru                                          |

6.2 FINANTZA INFORMAZIO OSAGARRIA

ONDARE GARBIA BRIDGE-A (M€)



<sup>1</sup> 2026ko uztailan ordaindutako 1,52142611 €-ko akzioko dibidendu gordin arrunta barne hartzen du. Zenbateko hori Akziodunen Batzar Nagusiak onartutako akzioko 1,52 €-ko dibidendu gordinari akzio propioei dagokien dibidenduaren zati proportzionala gehituta lortzen da.

## 6.3 AGENDA

### Hitzaldiak eta roadshow-ak

- **2026ko irailak 9**  
Autumn Conference Kepler Cheuvreux (Paris)
- **2026ko irailak 14**  
UBS Quo Vadis Industrials (birtuala)
- **2026ko irailak 16**  
Iberian Conference Caixabank-BPI (Madril)
- **2026ko urriak 9**  
Oddo BHF Iberian Digital Forum 2026 (birtuala)

### Emitzen argitalpena

- **2026ko azaroak 12**  
2026ko 9Hko emitzen argitalpena



## 6.4 ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk ("Alternative Performance Measures", "APMs" ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kuxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2026ko Lehen Seihiilekoko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan** dago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean ([www.cnmv.es](http://www.cnmv.es)) eta sozietatearen webgunean ([www.cafmobility.com](http://www.cafmobility.com)) dago irakurgai, 6. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.



CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE  
FERROCARRILES, S.A. Y  
SOCIEDADES DEPENDIENTES QUE  
COMPONEN EL GRUPO CAF  
(CONSOLIDADO)

INFORME PRIMER SEMESTRE 2026

JULIO 2026

TRUST  
IN MOTION



**TRUST**  
IN MOTION